



Oporretan (edo)

Luze joan zaizkigu aste xeble hauek... Aste Santuko oporrak ez dakigu luze joango zaizkigun baina hauek ere xeble xamarak izango direla argi dago. Denok egin behar izan ditugun moldaketak, hartu beharreko hainbat erabaki, etxea eta lana (edo lan falta) teiltupe berean, gertukoekiko urruntasuna, osasuna, zaintza, berri txarrak, ... Ikastolan saiatu gara etenari aurre egiten baina orain bai, etenaldi moduko bat proposatzen dugu.

Hala ere, HHkoek izango dute asteazkeneko euren irakasleen berri, LHkoek beharrezko komunikazioa mantenduko dute, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketan, berriz, tregoa txiki bat eman eta ebaluazio egutegia momentuz mantentzen dela jakinarazita, ikasleari autonomia emango zaio berak bere oporrak kudea ditzan. Idazkaritzan ere, behar-beharrezko informazioa jasoko da e-mail bidez.



Artezkarrizta Kontseiluak hartutako hainbat ezohiko erabaki

Astelehenean bildu zen Zurriola Ikastola I.K.E.ko **Artezkarrizta Kontseilua**. Bertan, bizi dugun egoera berezi hau dela medio, gure irakaskuntza kooperatibak langileen egoeraz, bazkideaz eta zerbitzuen kuoten inguruan hainbat erabaki hartu ziren. Gutun [honetan](#) duzue informazio guztia.




Ikastolako Bekak

Aurten ere Ikastolaren barne elkartasuna sustatzeko asmoz, Zurriola Ikastola IKEk bere **bazkideen artean** daukan beka sistemaren deialdia plazaratu du. Hona [deialdia](#) eta beka eskatzeko [inprimakia](#).



Pantaila: ondo erabili beharreko erreminta

Pantailaz inguratuta bizi baldin baginen aspaldi, azken aldiak are gehiago. Tresna ikaragarri onak dira pantailak. Aldi berean, ordea, arriskutsuak dira ondo erabiltzen ez badira. Alde batetik, **ikusmena** zaintzeko gomendio eta ariketa batzuk dituzue [bertan](#). Bestaldetik, gogorarazi nahi genuke, besteak beste, bideo-deiek edota taldekako elkarrizketek ikaskideak edota irakasleak kalte ditzaketela **erabilera egoki, errezpetuzko eta arduratsua** egiten ez bada. Helduon lana da ardura honetaz oroitaraztea.



Bai, enarak datoz udaberrian!

Etxean gaude, bai, baina zer demontre, **udaberria** bertan dugu! Zurriola Musika eta Dantza Eskolakoek euren youtube [kanalera](#) igo berri duten karaokeaz gozatu besterik ez duzue. Montxo Imazen (bai, gure Montxo) hitzekin "Egun da Xantimamiñe-ren" bertsioa moldatu dute enarak badatozela esateko! Hauxe da [karaokea](#) eta beste hau, berriz, [karaokea ahotsarekin](#). Aire, aire!



OHARRAK / AGENDA:

- **LH:** Alexia [gidak](#).
- **DBH1-3:** Hautazko arloen aukeraketa. Behin betiko aukeraketa galdetegiak: [DBH1](#), [DBH2](#) eta [DBH3](#). Galdetegiak osatzeko epea: apirilak 8.
- **DBH:** 2. ebaluazioko errekonferentziaren egutegia tutoreek bidali dute.
- **Zurriola IKE beka:** Eskari-epea [zabalik](#). Apirilak 24 arte.
- **Zurriola Antzerki Eskola:** [Oharra](#).
- **eliburutegia:** Liburuak deskargatu eta modu digitalean irakurtzeko ([Info+](#)).
- **EITB - Bitartean, etxetik ikasten:** [Informazioa](#).

UDAKO AISIALDI ESKAINTZA 2020

3-5 URTE
ENJOY ENGLISH
UDALEKU FERIAK

5-12 URTE
ENJOY ENGLISH
NIGEL'S UDALEKUAK: ESBEMO
UDALEKU RIKIAK
EUBENHARA MUSIKA UDALEKUA
MENDIA ETA PILOTA UDALEKUA
SIFU UDALEKUA
ITSABOIA ETA KULTURA UDALEKUA
GAZTE EGONALDIAK
ROBOTIKA

12-17 URTE
NIGEL'S UDALEKUAK: DONOSTIA
NIGEL'S UDALEKUAK: OZPELLA
ATZERRIKO EGONALDIAK: BILANDAN
SIFU UDALEKUA
GAZTE EGONALDIAK



ikastolenikartea

Izen ematea Udalekuetan: Online / Paperezko matrikulazio fitxa
Iriandako egonaldiaren matrikulazioa: Online
Informazio gehiago bertan

Oharra: Koronabirusak zabaltzen jarraitzen badu eta horren ondorioz Ikastolen Elkarteak udalekuak bertan behera uztea erabakiko balu, matrikula egiterakoan ordaindutako dirua itzuli egingo zaizue.

ANIMATU ETA UDALEKUETAN IZENA EMAN!

